

# DON DON KIKILIKON

Zotz egiteko antzinako abestia



4 urte+



*Don Don  
Kilikikon  
Hortxe dator  
Don Ramon  
Saltsa pika  
tortolika  
Patinean  
korrika!*

## Nola jolastu?

1. Asko baldin badira, umeak biribil bat osatu-ko dute (zutik ala lurrean eserita) eta ume bat erdian jarriko da. Umeak gutxi baldin badira, berri- z, nahikoa da elkarren ondoan jartzea, eta beste umea haien parean, aurrez aurre.

2. Umeak kanta kantatuko du, gainerako umeak banan-banan hatz erakuslearekin seinalatuz. Edo bestela denek kanta dezakete, eta umeak abestiaren erritmora seinalatu. Abestia bukatzen denean, "ka" esatean, seinalatzeko ari den ume hori izango da aukeratu.

## Iturria

Antzinako kanta da. Guk Arrasateko Begoña Arregiri jasotakoa hartu dugu oinarri moduan, baina bukarak berri usaina daukala iruditzen zaigu: jatorrizko bertsoan ez zela patinik agertuko, alegia. Kanta honen hainbat aldaera daude.

Beste aukera bat Antzuolan jasotako aldaera hau erabiltzea da:

*Din-don,  
Trikilikon  
Saltsa fika, tortolika  
Deuson  
Aittona Martzelon  
krisk eta krask eta  
Kaxkamelon  
Hara bera tronpeta  
hara kirikon*

